

bai

ziurtagiridunen aldizkaria

4. alea
2010eko abendua

PATXI ORMAZABAL

“Utopietan sinesten dut”

Bai Euskarari
urrats biziak

Urte Berriarekin |

desio berriak


2011n

ziurtagiriaren elkartea



baieuskarari.org

euskaraz
urrats
biziak



MUNDUORO euskaraz abierto al mundo



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
DEPARTAMENTO DE CULTURA





Rober Gutiérrez
Zuzendaria

Denok izan gaitezke euskararen lider

Azken aldian maiz entzuten da hizkuntza-biziberritze prozesuetan liderrak behar ditugula, erreferenteak diren pertsonak eta taldeak behar ditugula, ospetsuak izan daitezkeen erreferente orokorrak eta ingurune hurbilekoak, eragiteko ahalmena duen elitea behar-beharrezkoa dela hizkuntzaren alorrean, profesional euskaldunak euskaraz aritu behar direla eta ikusi ere ikusarazi behar direla, gune sinbolikoa osatuko duen aitzindaritza edo abangoardia gaitua identifikatu eta antolatu behar dela... Lider eraldatzaile horiek organizazioetan, administrazioan, gizartean, egoera formal eta informalean, maila lokalean eta orokorragoan, sarean, alor guztietan ikusgarri behar ditugu.

Ez da erronka makala, jakina! Kezka daukat, ordea, euskal gizartearen erreferenteak zeintzuk diren galderaren aurrean ez baitut erantzun garbirik eta ez dakit inork duen ere. Euskararen ezagutza eta erabilera areagotuko bada, euskaraz bizitzeko nahia duten pertsona eleanitzek aitzindaritza hartu behar dute; hauekin batera, elkarlanean, hizkuntzaren ezagutza handia izan gabe, aldeko jarrera dutenek. Hizkuntzari komeni zaio denok lider-rola geure egitea, aitzindariak izatea eta gure jardunaren bitartez akuilu lana egitea.

Argitaratzailea:

Ziurtagiriaren Elkarte
Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel. 943 592148
www.baieuskarari.org

 @baieuskarari

 www.facebook.com/baieuskarari

 www.baisarean.org

Zuzendaria:

Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:

Ziurtagiriaren Elkarte

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Paul Bilbao

Diseinua eta maketazioa:

BIT&MINA

Argazkiak:

Ziurtagiriaren Elkarte

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa

Inprimatzailea:

Leitzaran

Banaketa:

Ziurtagiriaren Elkarte

Lege gordailua:

SS-497-2010

Aldizkaria diruz lagundu duten entitateak:

Itzarri S.L.

ENPRESAKO KONTUAK ERE EUSKARAZ

Jarduna Administrazio Zerbitzuak kontabilitatea, nominak, zergak eta abar euskaraz eskaintzen dituen enpresa da, BERRIA taldearen zerbitzu enpresetako bat, eta Andoainen du egoitza. Dokumentazio guztia euskaraz lantzen du, eta horixe da **Jarduna Administrazio Zerbitzuak** beste aholkularitza enpresetatik bereizten duen ezaugarri nagusia.

Euskal enpresa askotan, bezero nahiz hornitzaileekiko harremanetan, euskara da komunikazio hizkuntza. Baina administrazio kontuak (kontabilitatea, nominak, zergak...) gaztelaniaz egiten dira: betidanik horrela egin denez, hizkuntza aldatzea arrotza baita.

Hala ere, hizkuntza aldatzea edo kontuak ele bitan izatea uneko erabaki bat izan daiteke. Hau da, hori egiteak ez dio gainkosturik ekartzen enpresari, eta, azken finean, euskara

lan munduan egunero erabiltzea norberaren erabakia da (hitzek gain, paperetan ere erabiltzea, alegia).

Beraz, enpresek kontuak gaztelania hutsean egiten jarrai dezakete, ele bitan edo euskara hutsean. **Jarduna Administrazio Zerbitzuak** azkeneko biak eskaintzen ditu, eta eurekin lanean diharduten enpresetako langileei edonolako zalantzak argitzen dizkie, baita behar dituzten argibideak eman ere.

Euskararen normalizazioaren harira, garrantzitsua da kontuak ele bitan eta euskara hutsean eskaintzea, alegia, euskaraz lan egin nahi duten enpresek hala egin ahal izateko baliabideak eskaintzea. Orain, tresnak badaudela jakinda, enpresek urrats hori egitea falta da.

JARDUNA: Bai Euskarari Ziurtagiria “Zerbitzua eta lana euskaraz” maila.



PAUL BILBAO SARRIA

Kontseiluko idazkari nagusia

Lan-munduan ere, pauso bat harago

Bai Euskarari izan zen Kontseiluak orain dela hamahiru urte hartu zuen leloa edo ikurritza. Horren adierazlerik handiena 1998ko abenduan izan zen 5 estadio-tako ekintzan, bai eta orduan antolatutako hainbat jardueratan ere. Esan liteke euskal gizartearen aldeotasuna ikusarazteko ikurritza izan dela *Bai Euskarari*. Gainera, lanketa intentsibo horrek emaitzak eskaini izan ditu; izan ere, populazioaren gehiengoak da euskararen aldekoa.

Hala ere, *Bai Euskarari* ideiak aldekotasuna sustatu arren, ez dugu lortu aldekotasun hori konpromiso praktikoetara bideratzea alde dauden guztien kasuan. Gizartearen gehiengoak konpartitzen duen ideia da, baina ideia horrek herri-tar bakoitzari iradokitzen dionaren arabera jarraitzea dira nagusi. Gaur egun, asko eta asko dira euskararen alde dauden herritarrak eta zoritxarrez asko dira alde egonik ere, oraindik ikasi ez dutenak edota erabiltzen ez dutenak.

Eremu sozioekonomikoan ere antzera gertatzen da. Finean, asko dira euskarari aldeotasuna agertzen dieten enpresak, eragileak eta abarrekoak, baina hori ez da nahikoa; izan ere, euskararen norma-

lizazioaren bidean beharrezko da urrats erabakigarriak ematea.

Normalizazio-prozesua konpartitua da eta, ondorioz, eremu sozioekonomikoko eragile guztiek pauso bat harago egin behar dute euskaraz bizitzeko nahia (eta eskubidea) bermatuko bazaigu. Hartara, eremu sozioekonomikoko eragileek nahitaezkoa dute euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzea. Gainera, egun, badugu neurri horiek guztiak egiaztatzeko tresna, hain zuzen ere, Ziurtagiriaren Elkartek kudeatzen duen Bai Euskarari Ziurtagiria. Urratsez urrats, baina gelditu gabe egin behar dute. *Bidean* ziurtagiritik hasita *Zerbitzua eta lana euskaraz* ziurtagirirako bidean jarri behar ditugu eremu sozioekonomikoko eragileak. Finean, euskararen alde esate edo egote hutsa ez da nahikoa euskararen normalizazioaren bidean beharrezko urrats eraginkorrak emateko. *Bai Euskarari Ziurtagiriak*, aldiz, helburu horretara iristeko bidea zein den erakustez gain, pauso bat harago egiten laguntzen die eremu sozioekonomikoko eragileei.

Ez dago hizkuntza bat normalizatzerik ez bada erabilera bermatzen alor sozioekonomikoan. Gure bizitzaren parte



handi bat lanean ematen dugu eta beste parte handi bat beste batzuen lanaz baliatzen. Hortaz, garrantzi handia du alor sozioekonomikoak betetzen dituen milaka espazioetan euskarari lekua egiteak. Eragile sozioekonomikoak hizkuntza-normalizaziorako agente bihurtu behar dira, eta horretarako bitartekoak eskaini beharko zaizkie.

Normalizazioaren bidean, euskaraz bizi ahal izango duen gizartean dugu lehenengo geltokia. Horretarako, ordea, baldintza sozial, ekonomiko, politiko eta juridiko egokiak izan beharko ditugu. Esaterako, euskaraz bizitzeko hautua indartu beharko da norbanakoen artean edota entitateek euskalduntze-prozesuak abiatzeko beharrezko presio soziala indartu beharko dugu. Hartara, entitateak pauso bat harago egitera eramane beharko ditugu guztion artean.

Pauso bat harago egin behar dugu eremu sozioekonomikoan eta hori bermatzeko zigilu ezin hobea da Bai Euskarari Ziurtagiria.

Jarri gurekin harremanetan!

www.elhuyaraholkularitza.net

aholkularitza@elhuyar.com

eta...




ELHUYAR
aholkularitza

ELHUYAR Aholkularitza
eraldatzeko giltza



euskararen
normalizazioa



emakume eta gizonen
aukera berdintasuna



herri-tarren
parte-hartzea



Patxi ORMAZABAL

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko presidentea

Ziurtagiriaren Elkartearen sortze-batzarrean izan zen Patxi Ormazabal eta bere hasieran zuzendaritzan parte hartu zuen. Utopietan sinesten du Ormazabalek, egungo Konfekoop, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko presidentek, edozein esparrutan hobetzeko utopiak beharrezkoak direla uste baitu: *“gizarte justu eta bidezkoagoa lortzea da nire utopia, eta zinez diot, kooperatibismoa helburu hori lortzeko lagungarria izan daitekeela”*.

Konfekoop-en federatutako kooperatiben egoera nolakoa da gaur egun?

Euskal Kooperatibismoaren osasuna nahiko ona da, eta 2010ean ia 100 kooperatiba berri sortu dira, krisia gorabehera. Egia da kooperatiba handiak direla, baina kooperatiba-ereduak oraindik ere funtzionatzen duela ematen du, ekonomia ondo doanean zein krisi garaietan balio duen eredu dela ematen du.

“Kooperatibak sortzea” helburu duen ELKAR-LAN kooperatiba, kooperatiba berriak sortzeko lan handia egiten ari da, bai eta beste sozietate mota batzuk kooperatiba-sozietate bihurtzeko eskaintzen duen aholkularitza eta laguntzaren esparruan ere. Familien sozie-

tateak, erlijio-ordenen ikastetxeak eta beste mota batzuetako enpresa askok eta askok, aurrera jarraitzeko, kooperatiba bihurtzearen aldeko hautua egin dute; aukera ona iruditzen zaigu hori, eta laguntza ematen jarraituko dugu.

Krisia nolako eragina ari da izaten?

Beste sozietate mota batzuetan bezalakoa, ez gehiago eta ez gutxiago. Gure enpresak “krisian dagoen mundu” batean daude eta ezin diogu horri ihes egin. Egia da kooperatiba askoren ekoizpen gehiena esportatu egiten dela, eta kontuan hartuta beste merkatu batzuk hobeto daudela, horiei hobeto doakie, edo “ez horren gaizki”. Nolanahi ere, frogatuta dago (eta ez EAEn soilik)

kooperatiben ereduak krisiaren eraginak “arintzeko” zenbait mekanismo badituela: barne-elkartasuna, elkarlankidetzak, “nirea ere baden” proiektu baten parte izatearen sentimendua, lan-egutegi malguak ezartzeko prestutasuna, ezohiko ekarpenak, lansari-aurrerakinen murrizpena zenbait kooperatibatan, etab.

Kooperatibak euskal ekonomian eta gizartean izan duen eragina izugarria da. Askok diote kooperatibismoaren balioak krisian daudela. Horrela da?

Alde batetik, egia da gure herriko kooperatibak euskal gizartean eragin handia daukan errealitatea direla, hala tamainagatik nola kooperatiben aniztasunagatik. Jende askok ez dakien arren,

“Kooperatiben mundua osatzen dugun eragileon artean komunikatzeko tresna da euskara”

ezin ahaztu dezakegu gure kooperatibak eta beren produktuak gure inguruko magma sozioekonomikoan nonahi daudela. Zenbait iturriren arabera, 400.000 lagunetik gora dira euskal kooperatibismoarekin nolabaiteko harreman zuzena daukatenak: enpresak, irakas-kuntza, nekazaritzako elikagaien sektorea, garraioak, zerbitzuak, kontsumoa, bankuak, etab. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak hartuko bagenu, eta aintzat hartuta harreman hori handiagoa litzatekeela gure kooperatibetan ekoizitako produktuen kontsumoaz ere ariko bagina, euskal kooperatibismoak euskal gizartean daukan eragina oso garrantzitsua dela esan dezakegu, hainbat harreman-maila daudela ahaztu gabe.

Bigarren gaiari dagokionez, “kooperatiben balioen galeraren” kontu hori... gizartean hainbat balio galtzen ari garela eta balio horiek kooperatiben filosofia-rekin lotuta daudela aintzat hartuta, gure balore batzuk ere “ahultzen” ari dira... baina ni ez naiz oso ezkorra esparru horretan. Elkartasuna, aberastasunaren bidezko banaketa, berdintasuna eta gisako balioak geroztik eta presenteago egongo diren balioak dira, batez ere krisiaren zenbait ondorio positibok bide horretatik eramango gaituztelakoan bainago.

Gure gizartean kooperatibek izan duten garrantzia ukaezina da, baina nolakoa izan dute nazioartean?

Munduan kooperatiben errealitatea oso anitza da eta oso sakabanatuta dago. Gu Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren bidez aritzen gara munduko elkar-tegintzaren esparruan. Elkarrekin horretan mundu osoko kooperatibak daude, eta

bere garrantziaz ohartu zaitezten esango dizut, mundu osoko 900 milioitik gora kooperatibista ordezkatzen dituela.

Dena den, seguruenik, euskal kooperatiben eredua munduko garatuena da, bere gizarte-ezarpenagatik, tamainarenagatik, hainbat sektoretan daukan presentziagatik, etab. Askotan nazioarteko foroetara gonbidatzen gaituzte “Mondragon eredua” edo “euskal kooperatibismoaren eredua” azaldu dezagun, eta asko eta asko dira mundu osotik bisitan etortzen zaizkigunak, toki bakoitzean beharrezkoak diren egokitzapenak egin da, eredua “kopiatu” daitekeen ikustera.



Enpresan berrikuntza behar dela azpimarratu izan duzu behin baino gehiagotan, bai alderdi ekonomikoari dagokionez eta baita sozialari dagokionez ere. Azaldu dezakezu?

Berrikuntza eta ikerkuntza askotan nahastu egiten direla ematen du. Nire ustez, biak ala biak beharrezkoak badira

ere, bakoitzak bere bidea dauka. Berrikuntza aldaketaren aldeko jarrera positiboa da. Inguratzen gaituen mundua begi kritikoz behatu eta hobetzeko jarra harraraziko digun aldaketa kulturala behar dugu. Aldaketa hori, hobekuntza hori, gizartearen esparru guztietan gertatu daiteke: enpresen munduan (produktuak, antolatzeak eta harremanak izateko moduak), gizarte-arloan, kulturaren, etab.

Berrikuntzarako gaitasuna izango da etorkizuneko gizarte arrakastatsuen ezaugarri nagusietako bat, eta hori da guk jorratu behar dugun bidea.

Nola berritu daiteke gaur egun enpresetan?

Enpresa osatzen duten guztiei parte hartzeko aukera ematea da berrikuntzaren gakoetako bat. Langileei parte hartzen utzi eta euren ezagutzak eta hausnarketak plazaratzeko eskatu dietenean ekin diote hainbat eta hainbat enpresak berrikuntzaren bideari. Zenbaitetan produktu edo prozesu batzuk hobetu dira, eta inoiz ekarpen horietan oinarrituriko enpresa berriak sortu dira. Horregatik, “berrikuntza-prozesuak” ezartzearekin ez da nahikoa. Berrikuntzaren kultura sortu behar da.

Langileen parte-hartzeaz edota gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunaz ere hitz egin ohi duzu. Zer garrantzia du horrek enpresaren funtzionamendurako? Gure kooperatiben esparruan bi alderdi horiek berebiziko garrantzia daukate. Lehentasuna dira guretzat, eta kooperatibismoaren nortasun-ikurretako batzuk dira. Bazkide guztiek enpresaren jabetzan berdintasunez parte hartzea;

bazkideak erantzukizunez enpresaren kudeaketan inplikatzea; sexu, etnia edo bestelako arrazoiengatik diskriminaziorik ez ematea... kooperatiben ADNaren berezko ezaugarrietako batzuk dira.

Gure Konfederazioaren barruko kooperatibetako pertsonak, laneko bazkideak, bi zati ia berdinetan banatuta daude: sexu bakoitzeko % 50. Bestalde, egia ere bada, eta ez dut ezkutatzeke batere asmorik, gure kooperatibetako ardura-postuetan banaketa horren portzentajea ez dela berdina. Emakumeen eta gizonen “hautatzeko eta hautatuak izateko” eskubidea berdina bada ere, ardura-postuetara iristen diren emakumeen kopurua gizona baino nabarmen txikiagoa da. Hori zuzentzeko ahalegin betean ari gara, baina kooperatibetan ere konpontzeke dagoen arazoa da.

Kooperatiba mugimenduaren barnean zein toki dauka euskarak?

Bere ingurunearekin dauzkan konpromisoak dira Euskal Kooperatiben Mugimenduaren beste nortasun-ikurretako bat, gurea den guztiarekin dauzkagun konpromiso zabal eta arduratsuak. Konpromiso horien artean, euskararekin daukagunak berebiziko garrantzia du. Gurean ez gara oso urruti joan behar konpromiso horren hainbat adibide ikusteko: euskararen sustapenari emandako laguntza, euskara irakastea xede duten kooperatiba-enpresak, kooperatiba diren ikastolak, geure enpresetan euskara sustatzeko egiten den lana, etab. Horrez gain, duela aste batzuk KONFEKOOPEk “Lazarraga” saria jaso zuen, bere agiri guztietan euskara erabiltzeagatik. Bide horretan jarraitzeko eta euskararen erabilera hobetzeko (gure bazkide diren enpresekin ditugun harremanetan, barne-dokumentazioan...) animoak ematen dizkigun saria

da. Bai Euskarari Ziurtagira “Zerbitzua euskaraz” maila ere badugu.

Euskarak zer ematen die kooperatibei? Eta kooperatibismoak zer euskarari?

Euskarak zer ematen digun? Kooperatiben mundua osatzen dugun eragileen artean eta gure harreman-sareko eragileekin komunikatzeko tresna bat da.



Barne-mailan ere, kooperatibek komunikazio-bide bat eskaintzen dute, euskara erabiltzen duten pertsonen laguntzen diete, eta zenbait kasutan barne-agiri eta komunikazioan euskararen erabilera eskatzen dute. Gure hizkuntza ikasteko aukerak eta laguntzak eman, esparru guztietan euskara erabiltzeko aukerak eskaini, eta bere erabilera bul-tzatzen dugu.

Horrez gain, onartu berri den Euskadiko Kooperatiba Txikiaren 6/2008 Legean, “kooperatiben sustapenari eta hezkuntzari laguntzea” helburu duen funtsa sortu da geure ekimenez. Funts hori kooperatiben urteko emaitzen %10are-

“Enpresa osatzen duten guztiei parte-hartzeko aukera ematea da berrikuntzaren gakoetako bat”

kin hornitzen da, eta “euskararen erabilera sustatzea” da bere helburuetako bat.

Krisiak eragiten al dio kooperatibismoaren barnean euskarari?

Nik dakidala ez. Ez dut ezagutzen krisiak kaltetu duen euskalduntze planik gure kooperatibetan.

Utopietan sinesten duzu? Zein da zurea?

Bai, utopietan sinesten dut. Oso pertsona baikorra naiz, eta horretarako ezinbestekoa da utopietan sinestea, batzuk beste batzuk baino lorgarriagoak badira ere.

Gizartearen esparruan, gizarte justu eta bidezkoagoa lortzea da nire utopia, eta zinez diot, kooperatibismoa helburu hori lortzeko lagungarri izan daitekeela, eta egunero utopia hori gauzatzea lortzen duela.

Politikaren esparruan, edo geopolitikan zehatzagoa izateko, herrien askatasuna da nire utopia: herri bat ez dadin beste baten mende egon, herri batek ez dezan beste bat azpian hartu, eta herri bakoitzak bere oraina eta bere etorkizuna erabakitzeko askatasuna izan dezan, beste herriekiko harremanak galdu gabe, baina askatasunez. Eta utopia horren barruan, erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen dut gure herriarentzat.

“Ez dut ezagutzen krisiak kaltetu duen euskalduntze planik gure kooperatibetan”

“EL TRATO PERSONALIZADO A LOS PACIENTES ES CLAVE PARA OFRECER UN SERVICIO DE CALIDAD”

El Sanatorio de Usurbil cumple 75 años desde su fundación y con este motivo se están realizando diversas celebraciones y actividades como una exposición de obras del taller ocupacional que se ha llevado a cabo en la sala de cultura de Usurbil, el I concurso de pintura o la elaboración de un libro que recoge la historia del centro.

El Sanatorio de Usurbil es una institución de amplia tradición en la asistencia de pacientes con patologías psiquiátricas, que viene desarrollando su actividad desde el año 1935, en un entorno natural en el que los pacientes puedan descansar y restablecerse.

Los valores fundamentales de su trabajo se basan en un trato personalizado del paciente y en la implicación de las familias, con el objetivo de intentar la mejor adaptación psicosocial y el menor número de recaídas. Según los responsables del centro, el trato personalizado de los pacientes es clave para ofrecer un servicio de calidad: “El plan terapéutico se diseña de tal manera que cada paciente tiene su programa específico diario de actividades y tiempo libre con horarios determinados. Con esto se pre-

tende que el paciente esté activo, aprenda a organizar su tiempo y rehabilitarse”.

En palabras de los responsables, para ofrecer un servicio de calidad es esencial atender a los pacientes en su idioma. Así, en el año 1999 el centro se sumó al proyecto Bai Euskarari, de una forma paulatina. “Hace dos años se constituyó el comité de euskara para trabajar de una forma más estructura-

da e impulsar un proceso encaminado a la obtención de un nivel superior del Certificado. Así, este año hemos obtenido el nivel *Zerbitzua Euskaraz*”.

Otras certificaciones que avalan al *Sanatorio de Usurbil* son ISO UNE 9001:2008 y Ekoscan.

USURBILGO SENDATEGIA: Bai Euskarari Ziurtagiria “Zerbitzua euskaraz” maila.



Jarduna
administrazio zerbitzuak

**Euskara denon kontua da,
kontuak ere euskaraz**



Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen dizugu:

KONTABILITATEA • ZERGAK • NOMINAK • KOBRANTZAK • AUTONOMOAK

Martin Ugalde Kultur Parkea ANDOAIN
Tel.: 943-30 40 30 • administrazioa@jarduna.net

www.jarduna.net

EUSKARAZ SARTUTAKO GOLAK

Itzarri Aholkularitza enpresak eta To-toanek, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioak, kirolean aitzindaria den proiektua abiatu dute: Euskal Herriko futbol entrenatzaile euskaldunentzako lehendabiziko eskola. Txorierriko futbol elkarteetako entrenatzaileen parte-hartzearekin abiatu dutena esperientzia pilotua da, eta Itzarriko arduradunek azaldu duten bezala, "helburua da futbolearen ere euskararen erabilera normalizatzea".

Proiektua hiru fasetan gauzatzen da: saio teorikoan, hiztegia, beroketa, teknika, taktika, estrategia edota kirolaren psikologia bezalako atalak lantzen dira; saio praktikoetan, Koikili Lertxundi Athletic-eko jokalaria eta Mikel Aramaio Txorierriko futbol taldeetako hamabost entrenatzaileekin elkartzen dira; eta azkenik, ikastaroan parte hartu dutenak *Futbola oinarritik euskaraz* eskuliburua jasotzen dute: argitalpenak ikastaroan landutako edukiak jasotzen ditu.



Egitasmoak Bizkaiko Foru Aldundiaren, Txorierriko Mankomunitatearen, Txorierriko Futbol Elkarteen, Kirol Planing enpresaren eta Azkue Fundazioaren laguntza jaso du.

FUTBOLA BAI, EUSKARA ERE BAI

Futbol esparrua alboratu gabe, Itzarrik, Athletic Fundazioarekin eta Bilboko Udalarekin elkarlanean, 6 eta 14 urte arteko gazteekin hiru entrenamendu saio antolatu ditu *Futbola bai, euskara ere bai* lelopean. Entrenamendu saio horien helburua eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera sustatzea da.

ITZARRI: Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua euskaraz" maila.

JAPONIERA ERRAZAGO IKASTEKO GIDALIBURUA



GoiHata S.L. enpresak liburu berria kaleratu du. Enpresaren jarduera nagusiak itzulpengintza, interpretazioa eta Japoniari buruzko aholkularitza izanik, Jon Goikolea arrasatearrak Japoniar ideogramak izeneko liburua idatzi du.

Egileak japoniera modu errazean ikasteko metodo praktikoa eta erabilerraza eskaintzen du; horretarako, euskarara ekarri ditu hizkuntza horretako 2.140 kanji ideograma. Gainera, liburuan eskaintzen ditu ikur horien guztien jatorria,

esanahia, ahoskera eta errazago ulertzeko eta memorizatzeko bidea. Guztira 6.000 kanji ideograma baino gehiago daude japonieran, baina Goikoleak egungo hezkuntza ofizialean eta eguneroko testuetan ohikoenak diren 2.140 kanjiak euskaratu ditu.

Euskaratze prozesuak bi urte luze iraun ditu, eta egileak Jos R. De Roo hizkuntzalari eta lagunak asmatutako Roo kodea izan du oinarri. Lanak, guztira, 310 orrialde ditu eta Elkar liburu-dendatan eros daite-

ke. Euskarazko bertsioa amaituta, egilearen asmoa da gaztelerazkoa idaztea.

Oraingo liburua ez da GoiHata enpresakoek egin duten lehenengo ahalegina euskara eta japoniera hurbiltzeko. 2007. urtean Interneten guztion eskura jarri zuten 20.000 hitz baino gehiago biltzen dituen Euskara-Japoniera eta Japoniera-Euskara hiztegia.

GOHIATA: Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua euskaraz" maila.

EUSKARAK ERE BADUELAKO GOZOTIK

Erretereriako Viteri kalean dauden **Aramendia Etxeak** gozodenda zabaldu zueneko 10. urteurrena ospatu berri du – Zangotzan ere badute beste denda bat–. Aramenditarrek tradizio handiko familia dira gozogintzan, lehenengo arras-toak 1898 urtekoak dira, karameluak egiten hasi zirenekoak. Orduz geroztik makina bat karamelu eta pastel egindakoak dira. Erretereriako gozo-dendan gainera, pastelen kalitateari bakarrik ez, zerbitzuaren kalitateari erreparatzen diote. Horregatik saltzen dituzte bertako produktuak euskaraz. Euskarak ere gozatzen laguntzen duelako.



ARAMENDIA ETXEA: Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua euskaraz" maila.

EIREK 10. URTEURRENA OSPATU DU DURANGOKO AZOKAN

Euskal Irakasleen Elkartek ere hamar urte bete ditu. Euskal Herriko unibertsitateetan euskararen garapen eta normal-kuntzaren alde lanean ari da, eragiten eta euskal irakasleen arteko komunikazio-sarea hobetzen. Bere jardunean, besteak beste, bi erakusketa nabarmentzen dira: unibertsitate mailako testu-liburuena eta euskarazko unibertsitate-liburuena. Azken hori ibiltaria da eta seigarren edizioan Mondrago Unibertsitatean izan da.

Bestalde, X. urteurrenaren harira, Durangoko Liburu Azokan mahai-ingurua antolatu zuten unibertsitateen egungo egoera aztertzeko, diagnostikoa egiteko eta etorkizuneko lan-ildoak finkatzeko.

EIRE: Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua eta lana euskaraz" maila.

SAREA EUSKARAZ ERAIKIZ

Ziurtagiriaren Elkartek “Enpresa eta euskara, sareak sortzen” izeneko jardunaldia egin zuen Gasteizen, EUSKALIT-ek eta INNOBASQUE-k elkarrekin antolatzen duten Kalitate eta Bikaintasunaren Europar Astea



Funky Projects-ekin euskarari buruzko tailerra egiten.

Lan munduan sareak nahiz teknologia berriak euskaraz erabil daitezkeela eta horrek enpresari onurak ere ekar diezakeela ondorioztatu zuten Gasteizko BIBAT museoan “Enpresa eta euskara, sareak sortzen” izenburupean azaroaren 11n egindako jardunaldian. Bai Euskarari Ziurtagiriaren webgune berria (baieuskarari.org) aurkezteaz gain, partaideek euskara euren organizazioko informazio eta komunikazio teknologietan txertatzen ikasi ahal izan zuten, eta ikaskuntza horretan aktiboki parte hartu zuten gainera.

Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendari **Roberto Gutiérrez**ek ireki zuen jardunaldia Bai Euskarariren webgune berria eta eguneko egitaraua aurkeztuz. Jarraian **Eneko Astigarragak** hartu zuen hitza,

Codesyntax enpresako gerenteak. Euskara, enpresa eta sarearen inguruko informazio orokorra eman zuen: euskaraz lan egin ahal izateko zein erreminta dauden azaldu zuen; enpresaren kanpora nahiz barrura begirako jardunean erreminta horiek egoki erabiltzen dituzten zenbait adibide eman zituen; eta azkenik, adibide horiek estrapolatuz eta ondorioak atereaz euskara, lan-mundua eta sarea lotzeko zenbait pista eman zuen. Ondoren, **Jabi Asurmendi** Bitarlan enpresako gerentearen txanda izan zen. Euskaraz lan egin nahi duten enpresen arteko elkarlanaz eta sare-lanaz mintzatu zen eta Facebook-en Ziurtagiriaren Elkartek eta Bitarlan enpresak sortu berri duten *Enpresarean* taldea aurkeztu zuen. Azkenik, **Funky Projects** enpresak dinamika parte-har-

tzailea eraman zuen aurrera “dibertsioa eta euskara lan munduan” gaitzat hartuta.

Partaide guztiak bat etorri ziren sarea eta lan mundua euskaraz uztartzen dituzten erabiltzaile banako nahiz kolektiboek etorkizuna badutela esatean. **Enpresa munduan sareak eta teknologia berriak euskaraz erabil daitezkeela azaldu zuen Gutiérrezek:** “Euskara enpresa munduan erabiltzea posible dela erakutsi nahi dugu, esperientzia arrakastatsuak egon badaudela erakusten duten adibideak emanaz, eta, era berean, enpresa munduan sareak eta teknologia berriak euskaraz erabiltzea posible dela”. Bai Euskarari Ziurtagiriaren webgune berritua ere estrategia horren barnean ulertu behar da: “Sare sozialekin uztartu dugu webgunea. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen eta enpresen arteko **elkarreragina bultzatu nahi dugu, nola Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateekin, hala etorkizunean eskuratu nahi dutenekin edota euskaraz lan egiten duten enpresekin**”.

MERKATU LOKALETAN, HIZKUNTZA LOKALA

Sarea eta enpresak alde batera utziz, **Astigarragaren** esanetan, euskararen erabileran bi faktorek eragiten dute: berriemaile bakoitzaren hizkuntza-gaitasunak eta testuinguru soziolinguis-

tikoak. Bi aldagai horien konbinaketatik erabilera-eredu ezberdinak lortzen dira: **“Baina Internetek testuinguru geografikoak ezartzen dituen mugak gainditzeko aukera ematen du, testuinguru birtual berri bat sortuz”**. Ondorioz, Astigarragaren aburuz, mundu birtualean euskarak bestela ez dituen aukerak ditu, besteak beste, badaudelako euskara sarean soilik erabiltzen duten norbanakoak edota taldeak.

Sareak, oro har, modan daudelako, komunikazioa errazten dutelako eta informazioa trukatu nahiz informazioa sortzeko aukera ematen dutelako erabiltzen dira, Astigarragaren arabera. **Enpresek ere antzeko arrazoiak izaten dituzte sare-sozialak erabiltzerakoan:** komunikazioa errazten dutelako bezeroekin, barne komunikazioa errazten dutelako, informazioa trukatu eta informazioa sortzeko aukera ematen dutelako, eta marketing-tresna direlako.



Jabi Asurmendi eta Eneko Astigarraga.

Hitzaldi osoa honelaxe labur daiteke Astigarragaren esanetan: **1. Interneteko sare sozialen garaia hasi baino ez da egin; 2. Enpresentzat estrategikoa da Interneteko sare-sozialetan egotea; 3. Sareko elkarrizketetan parte hartzen dutenak pertsonak dira; 4. Merkatu lokaletan hizkuntza lokala erabiltzeak lehiakortasunerako abantaila dakarkie enpresei.**

EUSKARAZ LAN EGIN NAHI DUTENENTZAKO TALDEA FACEBOOK-EN

Enpresarean Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen eta Bitarlan-en artean sortutako ekimena da eta horixe aurkeztu zuen **Asurmendik** jardunaldian: “Euskaraz lan egin nahi duten enpresentzako eta langileentzako Facebook-eko talde bat da *Enpresarean*”. **Ekimenaren helburuak jakinarazi zituen hasteko:** Euskaraz lan egin nahi duten enpresen artean eta langile euskaldunen artean elkarlana eta harremanak sustatzea, hornitzaile euskaldunak ezagutzea, bezero euskaldunak ezagutzea, enpresak eta langileak elkar ezagutzea, esperientziak eta jakintza elkartrukatzea eta baliabideak partekatzea, proiektuan elkarlanean aurrera eramatea, indarrak batzea euskaraz ez dauden baliabideak euskara daitezen, administrazio publikoan kontratatzen diren lanetan eta abiarazten diren lehi-aketetan eus-



baiEuskarari.org webgunea.



baisarean.org bloga.

kara kontuan hartzea, langile euskaldunak aurkitzea, lana euskaraz aurkitzea, eta elkarrekin eskaintza edo hitzarmen hobeak lortzea.

Enpresak eta langileak elkartzen diren talde batean bata bestearen arteko konpetentzia sortzea ohikoa litzatekeela iruditut arren, Asurmendik *konpetentzia* kontzeptuaren ordez, **koopetentzia edo lehialkartasuna** erabiltzen du. **Baliabideak, esperientziak, jakintza eta gas-tuak partekatzeari** deitzen dio horrela: “Bakarrik garatu ezin daitezkeen proiektuekin aurrera egin ahal izatea. Indarrak batu, elkarrekin helburuak lortzeko”.

KEPA MENDIA, EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA, JEZ SISTEMAS FERROVIARIOS, SKUNK FUNK ETA LAUNA UPATEGIA, **LAZARRAGA** **SARIEN IRABAZLE**

Ziurtagiriaren Elkarteak eta Arabako Foru Aldundiak, Arabako arlo sozio-ekonomikoan euskararen alde lan egin duten entitateak edota pertsonak saritzeko helburuarekin, Lazarraga Sariak sortu dituzte. Lehen banaketa-ekitaldia irailaren 23an egin zen. Sari ematen izan ziren Arabako Diputatu Nagusi **Xabier Agirre**; Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatu **Lorena López de Lacalle**; eta Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendari **Rober Gutiérrez**.

Bost irabazleen zerrendan honako hauek daude:

- **Kepa Mendia**, Gasteizko merkataria, euskararen aldeko ekarpen berezia egiteagatik.
- **Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa**, barne harremanetan euskararen erabilera egokia egiteagatik.
- Guardiako **Launa Upategia**, kanpoko harremanetan euskararen erabilera egokia egiteagatik.
- Laudioko **JEZ Sistemas Ferroviarios**, euskara sustatzeko ekimen berezi eta eraginkorrak bultzatzeagatik.
- Gasteizko **Skunk Funk** denda, hizkuntza paisaian euskararen erabilera egokia egiteagatik.



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAREN BAZKIDE

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak Soziolinguistika Klusterraren bazkide egin da. Soziolinguistika Klusterrak arlo teorikoaren eta aplikatuaren arteko lotura egiten du, eta arlo aplikatua, eremu ezberdinetan aritzen da: udal administrazioan, hezkuntza arloan... eta lan munduan. Lana eta euskararen erabilera hobeto nola uztartu aztertzen eta garatzen dute Klusterreko hainbat bazkidek: besteak beste **EMUNEK**, **Elhuyar Aholkularitzak**, **Artezak** eta **Kutxak**. Klusterrean alderdi hori indartzeko aukera izango da Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen bazkidetzearekin.

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA IRLANDAN

Belfasteko Irlandanet enpresak Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu du. Irlandanetek hainbat zerbitzu eskaintzen ditu euskaraz: bidaiak, hiri-tourrak, Irlandako musika taldeen kontratazioa, ingelesa ikasteko eta Irlandan bertan lana eta etxebizitza lortzeko zerbitzuak, itzulpenak, hitzaldiak, aholkularitzak, bitartekaritzak...



AMURRIOKO 43 ENTITATEK ETA GERNIKAKO 32K EUSKARAREKIN DUTEN KONPROMISOA BERRITU DUTE

Guztira 43 enpresa, saltoki eta era guztietako entitatek eskuratu zuten Bai Euskarari Ziurtagiria Amurrión abenduaren 3an egin zen banaketa ekitaldian. Horietatik 5ek “Zerbitzua eta lana euskaraz” maila lortu zuten; 8k “Zerbitzua euskaraz” maila; eta 30ek “Euskararen Bidean” maila. Azpimarragarria da, aurreko hiru entitatek maila igozteaz lortu dutela. Aiara Grafik Digitala SL, Frontoitaberna eta Izarobe Kultur Elkarteak “Euskararen Bidean” maila izate

tetik “Zerbitzua euskaraz” maila izatera igaro dira.

Gernikan berriz, guztira 32 entitatek eskuratu zuten Bai Euskarari Ziurtagiria, abenduaren 4an egin zen hirugarren banaketa aldian eta euskararekin duten konpromisoa berriro zuten hala. 32 entitate horietatik 4k “Zerbitzua eta lana euskaraz” maila lortu dute; 12k “Zerbitzua euskaraz” maila eta 16k “Bidean” maila.



Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa-ekitaldia Gernika-Lumón.

LA SOULE AUSSI DIT OUI À L'EUSKARA



Marie José Thornary.

L'année écoulée, la communauté des communes Xiberoa avait mené une réflexion avec l'Ikastola, AEK, Xiberoako Botza, Ürrats Berriak et d'autres groupes centrés sur l'Euskara, la conclusion souhaitait l'organisation d'une campagne Euskaraz Bai. L'association Xiberoan Euskaraz Bai a été créée pour mener cette campagne avec l'embauche d'une personne formée à cette tâche : Marie José Thornary. La communauté des communes avait décidé la démarche d'adhésion au Label Bai Euskarari.

L'association Xiberoan Euskaraz Bai, a précisé qu'une cinquantaine de commerçants a signé l'Accord Euskaraz Bai et que le travail de l'année va consister à rendre visite à ces signataires pour établir ensemble une plus grande visibilité de l'Euskara (signalétique, cartes de visite, factures, publicité, etc) dans leur établissement en leur proposant le Label Bai Euskarari.

‘NABIGATU EUSKARAZ’ KANPAINA

Euskalduna bazara, Interneten ere euskaraz lemapean abian da ‘Nabigatu Euskaraz’ kanpaina. Bakoitzaren nabigatzaileak lehenengo hitza euskaraz egin dezaten bultzatzeko kanpaina da. Helburu nagusia da Interneten euskararen pisu espezifiko handitzea eta euskara Interneteko hizkuntzarik erabilienera artean

jartzea. Horrez gain, nabigatzailea euskaraz izateak, webgune eleanitzetan, zuzenean euskarazko bertsioa jasotzeko aukera ematen dio erabiltzaileari eta programa bat deskargatzeko, zuzenean euskarazko bertsioa jasotzeko.

www.nabigatueuskaraz.com



TALLERES
MITXELENA, S.COOP.

Eziago poligonoa, 21 • Hernani, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Euskarak elkartzen gaitu.



Euskaraz lan egiten dugu. Euskaraz bideratzen ditugu gure harremanak, bai barnean, bai bezeroei begira. Eta euskararen aldeko apustuari eusten diogu, **euskara ardatz harturik Gipuzkoan** sustatzen ari diren **zenbait egitasmo estrategikotan** auzo-lankide jardunez buru-belarri, hala nola:

- **Mintzola Fundazioa**n, bertako patroia.
- **Soziolinguistika Kluster**rean, bazkide.
- **Gaindegia** behategiaren babesle.
- **Ahotsak.com** ahozko ondarearen bilketan laguntzaile.
- **Euskarazko zerbitzu**aren kalitatea sustatuz, Gipuzkoako Foru Aldundi eta hainbat udalekiko hitzarmen-kide.

Eta gizarte eta kulturazko beste hainbat ekimen ere babestuz.
Euskara gure nortasunaren *muin betierekoa* delako. Elkartzen gaituen hizkuntza.

